

## 1. LANABESA. IPUINA: ZORIONEKO HONDAMENDIA<sup>1</sup>

*Zorioneko hondamendia* ipuina irakurtzea proposatzen da edo helbide honetako bideoa ikustea:

<https://www.youtube.com/watch?v=gUa8xznISA4&t=22s>

Ondoren, bateratze-lan bat egingo dugu, eta, horretarako, honako galdera hauek erabil daitezke:

- Non bizi zen familia hondamendiaren aurretik?
- Zer egiten zuen Sagu eta andreak hondamendiaren aurretik?
- Non lan egiten zuen Sagu eta andreak hondamendiaren aurretik?
- Non lan egiten zuen sagu jaunak?
- Zer egiten zuen sagu jaunak hondamendiaren aurretik?
- Zergatik esertzen da sagu jauna bakarrik besaulkian?
- Nolako hondamendia gertatu da?
- Nor arduratuko da salbamenduaz?
- Nora igotzen dira beren burua salbatzeko?
- Zer egiten du Sagueta andreak hondamendiaren ondoren?
- Zer egiten du sagu jaunak hondamendiaren ondoren?
- Zergatik ikasten du sukaldean sagu jaunak?
- ...

Material osagarriak:

- Ipuineko irudi guztiak testurik gabe dakartzan dokumentua.
- Pertsonaiak, ipuina antzetzeko antzerkiko txotxongiloak balira bezala.

Material horiekin beste jarduera batzuk egin daitezke; esate baterako, hauek:

- Ipuineko irudiak eman, eta taldeka, idazten joan daitezela irudiaren oinean (ikasleak ahal duen mailan).
- Antzezpen bat egitea pertsonaiekin eta amaiera desberdinak bilatzea.

---

<sup>1</sup> Turin, A. eta Bosnia, N. *Zorioneko hondamendia*, Kalandraka argitaletxea, Pontevedra, 2014